



Urteko  
MEMORIA  
2020

# Edukia

1. **Zuzendari Nagusiaren** mezua
2. 2020, **posizionamendu estrategikoan** aurrera
3. **Mugarri** garrantzitsuak
4. **Etorkizun oparoa** aurrean

# Zuzendari Nagusiaren mezua

2020a Covid-19aren urtea izan da, eta halaxe sartuko da historian, parentesi urte gisara, Irizar Taldearen jarduera produktibo eta ekonomikoaren goranzko joera aldatu duen urte gisara.

Birusaren hedapena arintzeko garraio publikoan eta mugikortasun orokorrean ezarritako murrizketa bortitzek gogor astindu dute sektorea, batez ere distantzia ertain eta luzeko bidaiarien garraioa eta nazioarte mailako turismoa.

Bidaiarien bolumenean izandako beherakadak modu desberdinean eragin die merkatuko segmentuei: garraio diskrezionalaren beherakada %100ekoa izan da ia, eskola garraioa eta garraio pertsonala alde batera utzita; probintzien arteko garraioaren beherakada, berriz, %60 ingurukoa izan da, eta hiriko eta aldiriko garraioarena, %40koa. Ondorioz, Europan, autobusen eta autokarren matrikulazioen beherakada %60tik gorakoa izan da garraio diskrezionalan eta distantzia ertain eta luzeko linea erregularretan, eta %30ekoa intercity-schoolan. Espainiaren kasu konkretuan, jaitsiera %90ekoa izan da garraio diskrezionalan (desagertu egin baita, eskola garraioa izan ezik), %70ekoa linea erregularretan eta %50ekoa aldirikoetan; horrek esan nahi du %54ko jaitsiera izan dela batez beste.

Testuinguru horretan, Irizarren etorkizuneko hiru ildo estrategikoak indartzen jarraitu dugu. Oraindik ere "Moving Forward" goiburua dugu inspirazio iturri, hitz horietan islatzen baita Irizar Taldea osatzen dugunon izaera. Hala, parentesi urte hau aprobetxatu dugu gure posizionamendua, bezeroarengana hurbiltzeko estrategia eta gure marka indartzen segitzeko, betiere begirada etorkizunean jarrita. Ahalegin handiagoa egin dugu gure bezeroengandik inoiz baino gertuago egoteko eta haien errealitate berrietara egokitzeko, soluzio iraunkorrago eta eraginkorragoen alde eginez.

Irizar Taldea eragile global bat izatea nahi dugu, bai hiriko mugikortasunean bai distantzia ertain eta luzekoan. Horregatik, inbertitzen jarraitu dugu gure plan estrategikoak birdefinitzeko, iraunkortasuna etorkizuneko ezinbesteko balioztat hartuz. Gainera, eduki teknologiko handiko soluzioak bilatzen ari gara, gure bezeroek eraginkorrago jardun dezaten egiten dituzten zerbitzuetan, kontuan harturik bezerook direla, dudarik gabe, gure helburu guztien erdigunea.

Era berean, eta beherakada handiak jasan ditugun arren, eutsi egin diogu Irizar Taldea osatzen dugunon enpleguari, komunikazioa eta prestakuntza indartzeaz gain, etorkizuneko erronka berrietarako prestatzen jarraitzeko.



2021a ere zaila ari da izaten guretzat, baina txertaketek aurrera egin ahala, badirudi suspertze zantzuak ikusten hasi direla. Irizar Taldean prest gaude gure helburuei berriz heldu eta horretan indarra jartzeko, hazkunderaren bidera itzultze aldera. Ez daukagu zalantzarik garraio publiko iraunkor eta adimenduna ezinbestekoa izango dela etorkizunean.

Eutsi goiari!

Rafael Sterling, CEO Grupo Irizar


# 2020, Irizar taldearen **posizionamendu estrategikoan aurrera** egin dugun urtea

Irizar Taldearen bolumen nagusia, gero eta dibertsifikatuagoa izan arren, autobusen, autokarren eta osagaien fabrikazioan eta komertzializazioan oinarritzen da funtsean. Hori dela eta, 2020an fakturazio bateratuan %56ko beherakada izan badugu ere 2019arekin alderatuta (errekor historikoa), posizionamendu estrategikoari dagokionez aukera eta aurrerapen urtea ere izan da, eta esan behar da, gainera, mugikortasun iraunkorrari buruzko gure ikuspegia berretsi dugula, etorkizuneko hazkunderako gida gisa.


Propulzio sistema iraunkorragoetan egin dugun inbertsioari esker, merkatu segmentu berrietan sartu gara eta zero igorpeneko hiri mugikortasunean hazten jarraitu dugu. 2020an, gazezko autobus eta autokarren soluzioak garatu ditugu, bai GNCn, bai GNLn, baita ibilgailu hibrido berriak ere, batez ere hirietan elkartzen diren ibilbideetan. Gainera, Taldeak elektromugikortasunaren alde egin duen apustuak fruituak ematen jarraitu du, eta Irizar e-mobilityk %50eko hazkundera izan du 2019arekiko.

Unitateei dagokienez, Taldeak 1.523 autobus eta autokar egin zituen guztira, eta horietatik 724 Irizar Ormaiztegin egin ziren. 230 merkatu nazionalekoak dira eta 494 esportaziokoak.

### Fakturazio finkatua (milioi eurotan)



### Pertsonak



Ekoizpen lantegien portaera antzekoa izan da, baina beherakadak beherakada, **lidergoari eutsi diogu hainbat herrialdetan, hala nola Espainian, Mexikon, Marokon, Txilen eta Australian.**

### **Irizar Mexiko**

Ingurune makroekonomiko eta sanitario oso zail batean, non garraioaren jarduerak %40 baino gehiagoko beherakada izan duen, Irizar Mexiko oso indartsu posizionatuta dago oraindik, izan ere, merkatuko liderra da autobusen eta autokarren sektorean eta bere merkatu kuota %66raino handitu da.

### **Irizar Brasil**

Irizar Brasil ere krisiak gogor jo du, izan ere, %40ko beherakada izan da batez beste. Gogoratu behar da Irizar Brasilek ekoizten dituen ibilgailuak Latinoamerikako merkatuetara, Australiara eta Hegoafrikara esportatzen dituela. Bere merkatu nagusia Txile da. Meatzaritzaren sektoreak bere jarduerari eutsi dio pandemia gorabehera; hori dela eta, 2020rako espero izatekoa zen aurreikuspenari eusteaz gain, ia %7 hazi da. Peruk, ordea, beherakada handia izan du (%76koa), herrialde horrek izan dituen murrizketa handi eta luzeen ondorioz.

### **Irizar Asia Pacific**

Australian, Irizar Asia Pacific egonkortuta dago turismo, eskola garraio eta distantzia ertain eta luzeko segmentuetako enpresa erreferente gisa. Eskolako autobus merkatuan izandako hazkunde handia eta meatzaritza konpainiekin egindako kontratuak funtsezkoak izan dira hazkunde hori lortzeko, izan ere, %10eko hazkundea ekarri dute.

### **Irizar Hegoafrika**

Hegoafrikak ere zigor latza pairatu du krisi sanitarioaren ondorioz. Inguruko herrialdeekiko mugak itxita egon dira ia urte guztian, eta horrek %80tik gorako beherakada eragin du.

### **Irizar Maroko**

Marokon lider izaten jarraitzen dugu diskrezionalean eta probintzia arteko garraioan. Herrialdearen mugak itxi izanak eta hirien konfinamendu perimetralak mugikortasuna erabat geldiarazi du, eta emaitza positiboak lortzea eragotzi. Inbertsioak egiten ari gara tokiko industria indartsu bat sortzeko. Estrategia horri esker, herrialdean erreferentzia bihurtu gara hiriko eta aldirietako autobus fabrikazioan. Estrategia horren erakusgarri, i3 Low Entry-aren 200 unitateko eskari bat jaso dugu Casablanca hirirako, hots, gure aldiriko autobusen historiako handiena.



## Taldeko enpresak

Taldeko gainerako enpresei ere eragin die krisiak, baina neurri txikiagoan

### **Irizar e-mobility**

Irizar e-mobilityk erreferente izaten segitzen du Europan zero igorpen eta 'erabiltzeko prest' motako aukerak eskaintzen, eta hedatzen jarraitzen du lankidetzeta eta banaketa akordioen bitartez; horiei esker eskari berriak jaso dira hainbat hiritan; horien artean: Madril, Estrasburgo, Burgas (Bulgaria), Hanburgo, Bilbo, Orleans, Frankfurt eta Genoa. Era berean, 2020a etengabeko garapenen urtea izan da; horien artean, kargagailu berriak, power train eta battery pack direlakoak, Irizar Taldearen barruan edo hornitzaile estrategikoen parte hartzearekin diseinatuak. Era berean, Irizar ie truck kamioi elektrikoa harrera ona izaten ari da eta erakustaldiak egiten jarraitzen du emaitza positiboekin, besteak beste, Madrilen, Bartzelonan, Marseillan eta Donostian.



### **Jema**

Jema Energyk muntako kaptazioak lortu ditu nazioartean, sistema aurreratuen dibisioan, eta elektromugikortasunaren sektorean aurrera egiten jarraitzen du, kargagailuen garapen berriekin, zenbait ibilgailu markarekin karga interoperabilitatea garatuz, komunikazio estandarrak ezarri eta heavy duty trakzio sistemak merkaturatuz. Gainera, Berriztagarrien, Sarearen Kalitatearen eta Biltegiatzearen arloan, proiektuak batzen jarraitzen du. Azken arlo horretan, 'erabiltzeko prest' motako soluzioak garatu ditu sare elektrikoaren kalitatea oso ezegonkorra den uharteetarako, energia berriztagarriko trantsizioa ahalbidetuz.

### **masats**

Masatsek behera egin du autobuserako irisgarritasun sistemetan, batez ere turismoaren sektorean; hala ere, indartu egin du trenbidearen merkaturan duen posizioa, eta tren ateen eskari handi bat eskuratu du, baita Singapurreko hiri autobusetarako ateen eskari bat ere.

### **hispacold**

Hispacolden eta Masatsen, bidaiarien errepedeko garraioaren sektoreko jarduerak eta fakturazioak izandako jaitsierak konpentsatu egin dira, hein batean, trenaren eta elektromugikortasunaren sektoreko jarduera igoerari esker.

### **datik**

Datik hazi egin da ustiapenari laguntzeko sistemen lizitazio publiko berriekin, eta horrek marka historikoa ezarri du eskarien zorroan eta kaptazioetan.

### **alconza**

Alconzarentzat 2020a hazkunde urtea izan da bai fakturazioan bai eskarien zorroan.

## Mugarri garrantzitsuak

Parentesi urte hau aprobeixatu dugu gure posizionamendua, bezeroarengana hurbiltzeko estrategia eta gure marka indartzen segitzeko, betiere begirada etorkizunean jarrita. Testuinguru horretan kokatzen ditugu honako jarduerak hauek.

**Produktu berriak eta teknologia berriak.** Produktu eta teknologia berrien garapenean inbertitzen jarraitzen dugu, eraginkortasuna eta iraunkortasuna ezinbesteko balio gisa finkatuz. Gas naturalaren teknologia (GNC) merkaturatu dugu aldiriko ibilgailuentzat, eta gas natural likidotuz (GNL) dabiltzan ibilgailuak garatzen hasi gara. Ibilgailu hibrido berriak ere fabrikatu ditugu, batez ere hirietan elkartzen diren ibilbideetan. Berrikuntzarako gaitasun horri esker, aurreneko GNC eskariak lortu ditugu Frantzia, 80 GNL unitatetik gorako lehen tenderra eskuratu dugu Italian, eta 50 unitate hibrido baino gehiago jarri ditugu martxan Espainian.



**Bezeroarengana hurbiltzeko estrategia.** Ahalegin handiagoa egin dugu gure bezeroengandik inoiz baino hurbilago egoteko eta haien errealitate berrietara egokitzeko, izan ere, Covidaren kontrako segurtasun soluzioak eman ditugu birusa ez hedatzeko eta garraio publiko kolektiboa suspertzeko; besteak beste, gidari eta bidaiarientzako babes manparak, tenperatura kontrolatzeko kamerak sarbidean, Eco3 aire arazgailuak, airea berritzeko sistemak eta barrualdea desinfektatzeko sistemak.

4.000 autokar baino gehiagotan ezarri ditugu sistema hauek

**Lanpostuak mantendu ditugu.** Beherakada handiak jasan arren, Irizar Taldea osatzen dugun 3.000 pertsonen enpleguari eutsi diogu. Pertsona guztien konpromisoak agerian uzten ditu definitzen gaituzten eta gure misioan islatzen diren balioak.

**Plan estrategikoen birdefinizioa.** Hausnarketa aldi bat ireki dugu etorkizunera begira datozen aldaketak eta joerak mahai gainean jartzeko. Plan estrategikoak birdefinitzen ari gara eta suspertze agertoki desberdinak planteatu ditugu. Prestakuntza, komunikazioa, bezeroarentzako malgutasuna eta aldaketara egokitzeko gaitasuna ere indartu ditugu. Ez dugu galdu nahi Irizar Taldeak 2019a itxi zueneko ikuspegi aparta. Ikuspegi hori gidari izan behar dugu susperraldia hasi bezain laster indar handiagoz itzultzeko.


### Laguntza sozialak

Laguntza sozialak ematen jarraitu dugu gure printzipioen eta gure misioaren arabera.

## Lankidetza hitzarmena Alemanian

Lankidetza hitzarmen bat sinatu dugu Scania Deutschlandekin, Alemaniako merkatuari Irizar-Scania gure autokar gama eskaintzeko. Lankidetza horren bidez, Irizarrek posizionamendu sendoagoa lortu nahi du hiriarteko autobusen eta autokarren sektoreetan, premium segmenturako produktu gama zabala jarri haren eskura; produktu horien artean daude Irizar i8, Irizar i6S, i6 eta hiri arteko Irizar i4 modeloak.

Hitzarmenaren arabera, Irizar autokarrak modu eksklusiboan merkaturatuko dira Scaniak Alemanian duen banaketa sarearen bidez. Sare horrek baditu, dagoneko, zerbitzu zorro zabal bat, 17 zentro tekniko espezializatu eta 150 tailer propio baino gehiagoko sare bat, bai eta autobus erabilien zentro bat ere, duela gutxi sortu dena.



## Gure presentzia azoketan

### UMA 2020 - Nashville, Tennessee - 2020ko urtarrila

United Motorcoach America (UMA) azokan egon zen Irizar. Azoka 2020ko urtarrilean egin zen Nashvillen, Tennesseeen, eta amerikar operadoreei marka definitzen duten balioak erakutsi zitzaizkien, bai eta haien beharrei erantzuteko garatutako eta pertsonalizatutako produktuak eta teknologia ere. Une hartan inork ere ez zeukan zetorkigun krisi sanitarioaren arrastorik.

### IBE 2020 azoka - Rimini - 2020ko urria

Mugikortasunaren sektorean oro har, eta bidaiariaren garraio publikoan bereziki, krisi eta ziurgabetasun handiko testuingurua bizi dugu, baina Riminin egin zen IBE azokan parte hartzea eta bertara 650 m2-ko standarekin joatea erabaki genuen, gure bezeroen ondoan egoteko eta sektore honek ekonomiari eta gizarteari ematen dien balio erantsi handia ikusarazteko helburu nagusiarekin. Hona hemen aukeratutako goiburua: "Beti zure ondoan: etorkizun seguruago, eraginkorrago eta iraunkorrago baten alde".


Gure standean autobus eraginkor eta adimendunen azken belaunaldia aurkeztu zen: Irizar i8 autobus integrala, 12 metroko luzerakoa; Irizar i6S autobus integrala, 12 metroko luzerakoa, mugikortasun urriko pertsonentzako gurrpil aulkiak jasotzeko plataformaduna; Irizar i6 bat, 12 metroko luzerakoa, Scania txasisaren gainean; eta Italiara Irizar markarekin iristen den lehen e-busa, zero igorpenekoa eta %100 elektrikoa den autobus elektrikoa. Italiako merkatura egokitutako soluzioen gama zabala.



## IZIR - Ekonomia zirkularra

Berrerabiltzeko printzipioa eta gure ekoi-zenetik soberan geratzen diren materialentzako bizitza berri bat bilatzeko printzipioa aintzat hartuta (hasiera batean, materialok hondakin bihurtzekoak ziren), Izir marka sortu genuen, eta aurten ere marka horrekin eboluzionatzen jarraitu dugu.

Proiektu honi esker, Itsas Zaindari saria jaso dugu, #ZeroZaborEnpresak kategorian, non enpresetan hondakinak minimizatzeke proposamen iraunkor eta berritzaileak batoratzen baitira.





## Irizar Marocentzako autobus eskaririk handiena

Marokoko gure lantegirako autobus eskari handienaren esleipenarekin hasi genuen urtea: Alsa Albaidarako 200 autobus, Casablanca hiriko hiri garraiorako.

Scania K320 UB4X2 LB Euro6 txasisaren gaineko Irizar i3le modeloko autobusak hiriaren eta bidaiarien beharretarako pertsonalizatu dira, eta azken teknologia daramate segurtasunari, erosotasunari eta irisgarritasunari dagokienez. 12 metroko luzera eta 33 lagun eserita joateko lekua duten autobusak dira; gainera, gurpil aukientzako arrapalak eta mugikortasun urriko pertsonentzako plaza espezifikoak dituzte.

## Eco3 aire arazgailua, SARS-CoV-2aren aurrean %99,7tik gorako eraginkortasun ziurtatua

Eco3 aire arazgailua duten autokarrek SARS-CoV-2aren %99,7 baino gehiago desagerrarazteko efikazia erakutsi dute, Teknika Aeroespazialeko Institutu Nazionalako (INTA, Espainiako Gobernuako Defentsa Ministerioaren menpekoa) NBQ Defentsa Sistemen Departamentuaren Defentsa Biologikoko Arloak egindako proben txostenaren arabera.

Hispacoldek garatutako Eco3 aire arazgailuak ioiak igortzen ditu aire korrontean HVAC sistemak martxan dauden bitartean; hola, sortzen den giroan ez dago birusik -SARS-CoV-2a barne-, ezta mikroorganismorik, bakteriorik, germenik, alergenorik eta hauts partikularik ere. Gainera, ioiak sortzeko prozesuan ozonoa ere sortzen da, baina oso kontzentrazio baxuan (<0,05 ppm), bidaiariei kalterik ez egiteko; horri esker, usain txarrak desagerrarazten dira eta ibilgailu barruko oxigeno kontzentrazioa handitzen da; ondorioz, neke sentazioa urritzen zaie bidaiariei zein gidariari.

## Covid Managerra

Garraio operadoreentzako eta agintari publikoentzako sistema baten garapena, gizarteari COVID-19 birusaren hedapena mugatzen laguntzeko.

iPanel® online plataformara konektatzen da, eta, hola, kudeaketa tresna perfektua bihurtzen da, bidaiariei eta gidariei eragiten dieten segurtasun protokoloak betetzeko.

1-Sarbidea kontrolatzen du: temperatura eta musukoa detektatzen ditu, eta bidaiari bakoitzari sartzeko baimena ematen dio.

2-Flotaren kudeaketa: bidaiariren batek pasatzeko baimenik ez duela jakinarazten dio operadoreari.

3-Jarduteko erraztasuna: intzidentziak jasotzeko eta bidaiari horiei arreta emateko aukera.



## Purificador de aire eco<sub>3</sub>





## Energia berdeko elektromugikortasuneko lehen fabrika bihurtu da European

Euskadiko eguzki parke fotovoltaiko handiena abian jarri da, Ekian ize-nekoa, Energiaren Euskal Erakundeak eta KREANek sustatutako ekimen publiko-pribatua. Eguzki planta fotovoltaikoa azken belaunaldiko 66.000 eguzki panelek osatzen dute, bakoitza 355 watekoa. Guztira, 24 MW-ko potentzia instalatua du, Euskadiren egungo eguzki potentzia bikoizten duena. Sortutako energiak Irizar e-mobilityren instalazioak hornitzen ditu, eta energia guztiz garbiko zero igorpeneko autobus elektrikoak ekoizten dituen lehenengo fabrika da European.



## Irizar Taldearen autobus autonomoa

Urtearen hasieran Irizar Taldearen lehen autobus autonomoa aurkeztu zen Malagan, alegia, Avanzak burututako proiektu aitzindari honen probak hartzen dituen hirian.

Proba honetarako garatutako autobusa Irizar ie bus modeloa da, %100 elektrikoa eta zero igorpenekoa, gidatzeko modu duala, eskuzko modua eta modu automatikoa (pilotu automatikoa) dituena. 12 metroko luzera du, eta 60 bidaiari garraiatzeko gaitasuna. Lehen autobus autonomo hau Espainiako Ekonomia Ministerioaren Industria Teknologiaren Garapenerako Zentroak (CDTI) finantzatutako AutoMost proiektuaren emaitza da.



## Made in Euskadi Saria

Irizar e-mobilityk "Made in Euskadi 2019" saria jaso du, Euskal Industriaren Zigilua mundu osoan zabaltzeagatik.

Irizar Taldeko zuzendari nagusi Rafael Sterlingek eskertu egin zuen sari entzutetsua: "Harro eta pozarren gaude, sari honek Irizarrek azken urteotan egin duen jauzi estrategiko eta teknologiko handia aintzat hartzen duelako, eta sektoreko fabrikatzaile independente onenen artean kokatzen garelako European".

## European hedatuz

Irizar e-mobilityk 2020an European izan duen hedapenak honako hauek barne hartzen ditu, besteak beste: Italiako Genoa hirian lehorreratzea zero igorpeneko 14 unitaterekin; Frankfurtarako autobus artikulatuak; Orleansen garraio publiko erabat elektrikoko sistema bat ezartzeko 29 autobus, eta Estrasburgoko Eurometropole garraio publikoko sarerako 49 autobus, denak ere %100 elektrikoak eta zero igorpenekoak.



# Etorkizun oparoa aurrean

Ondo jakina da gure estrategia epe luzerakoa dela beti, eta gure bezeroen gogobetetasuna bilatzean oinarritzen dela, haien beharrei balio erantsi handia emanez eta etorkizuneko mugikortasun erronka berriei erantzunez.

“**Mugikortasun iraunkorra** funtsezko faktorea da trantsizio energetikoan.”

Garapen Iraunkorreko Helburuak eta 2030 Agenda erreferentzia esparrutzat hartuta, Irizar Taldean soluzioak eta ‘erabiltzeko prest’ motako zerbitzuak diseinatzen eta fabrikatzen jarraituko dugu, garraio kolektibo iraunkor, eraginkor, adimendun, irisgarri, seguru eta konektatua helburu. Argia da mugikortasun publiko kolektiboaren alde egin dugun apustua.

Gure etorkizuneko proiektuetan, igorpenik gabeko produktuen eta teknologien be-launaldi berriak sartzen dira, gure bezeroen erosketa kostu totala (TCO) hobetzen dutenak. Dagoeneko aipatu ditugun gasetzko autokarrez (GNC eta GNL) eta hibridoez gain, hidrogenoz propultsatutako zenbait mugikortasun proiektu ere hasi ditugu; horietako bat, hidrogenoaren Euskadiko korridorearen barruan, eta beste batzuk Europan.

Irizar Taldearen datozen urteetarako road map teknologikoan hidrogenoz propultsatutako ibilbide ertain eta luzeko autokarrak garatzea aurreikusten da, pixkanaka Irizar Taldearen gainerako ibilgailuetara hedatuko dena (autobusak eta hiriko erabileretarako kamioiak).

Gidatze autonomo eta adimenduna ere erronka handia da guretzat. Izan ere, zero igorpeneko gure lehen autobus autonomoa Malaga hirian dabil AutoMOST proiektuaren barruan. Proiektu aitzindaria da, Europan benetako zirkulazioan jarri den gaitasun handiko lehen autobus autonomoa baita.

